

udal**top**

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

#udal**top**18

Hizkuntza-eskubideen izaera politikoa

XABIER ARZOZ SANTESTEBAN

(ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEKO KATEDRADUNA UNEDen)

[www.udal**top**.eus](http://www.udaltop.eus)



Hizkuntza-eskubideen izaera politikoa¹

#udaltop18

XABIER ARZOZ SANTESTEBAN
(ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEKO KATEDRADUNA UNEDen)

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Hizkuntza-eskubideen definizioa	6
Hizkuntza-eskubideen izaera politikoa	8
Hizkuntza-eskubideen bost eredu	9
Ondorioak	18

¹ Lan honek ondorengo bi artikulutan garatuko ideak laburbiltzen ditu: Xabier Arzoz, 'Language Rights as Legal Norms', *European Public Law*, 15:4, 2009, 541-574 orr., eta 'Accommodating linguistic difference: Five normative models of language rights', *European Constitutional Law Review*, 6:1, 2010, 102-122 orr. Artikulu horietan irakurleak erreferentzia doktrinal ugari aurkituko ditu.

Hizkuntza-eskubideen izaera eta edukia definitzeko zenbait paradigma akademiko hedatu dira azken hamarkadetan: hala nola, «giza eskubide linguistikoena» eta «justizia linguistikoarena». Testu honetan hizkuntza-eskubideen karakterizazio juridiko zorrotza eta, aldi berean, errealista proposatzen da. Teoriak eta praktikak erakusten duten bezala, estatu barruko hizkuntza-aniztasuna egokitzeke hainbat neurri eta eredu posibleak dira, hiztunen nahiak betetzen dituztelarik. Arrazoi nagusia honako hau da: hizkuntzen ezaugarriak eta egoerak eta halaber hiztunen beharrak oso desberdinak dira. Aldeztuko den tesia da hizkuntza-eskubideak prozesu politikoaren bidez eratzen direla nagusiki eta horrela izan behar duela nahita ez. Tesia erakusteko, munduan existitzen diren hizkuntza-eskubideak bost eredu normatibotan sailkatuko dira eta beren azpiko normatibitatea azalduko da.

Sarrera

Azken hamarkadetan hizkuntza gutxituen inguruko errebindikazioek bi paradigmarekin egin dute topo: batetik, «giza eskubide linguistikoekin»; bestetik, «justizia linguistikoarekin».

a) Giza eskubideak 1945z geroztik munduan gertatu den iraultza juridikoaren parte dira, hogeigarren mendeko gertaera juridiko nagusietako bat. Kultura politiko modernoaren elementu garrantzitsu bihurtu dira. Eskubideen diskurtsoak herri-kultura politikoa iragazi du, baita legezkoak ez diren diziplina zientifiko asko ere. Gizabanako edo talde batek erreklamazio bat duenean, eskubideen diskurtso batean formulatzeko joera du, eta, askotan, giza eskubideen diskurtso batean. Zinez, eskubideen diskurtsoa oso baliagarria izan da talde askorentzat azken hamarkadetan.

Hala ere, eskubideen iraultzaren arrakastak eskubideen erreklamazioen inflazioa ere eragin du. Eskubideen aldarrikapenei lotutako interesen sorta nabarmen hazi da. Egia da nazioarteko tresnetan giza eskubideen zerrenda ikaragarria dela, eta badirudi eten gabe hazten ari dela (aldarrikapen berrienak eskubide digitalei eta neurozientziei dagozkie). Giza eskubideen nozioak dei berezia egiten die gutxiengo hizkuntza-ekintzaile, abokatu eta akademiko askori, hizkuntza-eskubideak, bistan denez, giza eskubideak balira bezala edo aldarrikapen positiboaren aurretik baleude bezala lantzeko eta erreklamatzeko joera baitute. Bereziki, hizkuntza gutxituei buruzko gaietako zenbait adituk giza eskubideen aldeko ikuspegia aldarrikatu zuten hizkuntza-eskubideei dagokienez. Izan ere, «giza eskubide linguistikoaren» kontzeptua abian jarri zuten arrakasta nabarmenez.

«Giza eskubide linguistikoaren» aldarrikapenak hizkuntza eskubideen sistema nahiko zabaldua iradokitzen du, planetako biztanle guztien mesedetan. «Giza eskubide linguistikoaren» arreta-gunea *hezkuntzako hizkuntza-eskubideetan* kokatuta dago. «Giza eskubide linguistikoaren» aldezleek argudiatzen dute, batetik, ama-hiz-

kuntza ikasteko eta erabiltzeko eta, bestetik, nor bere bizilekua duen herrialdeko hizkuntza ofizialetako bat gutxienez ikasteko eskubideak «oinarrizko eta besterenezinak diren giza eskubide linguistikoak» direla.² Aldiz, «giza eskubide linguistikoak» nozioa ez da hain zehaztuta hezkuntza eskubideen testuingurutik kanpo.

b) Azken urteetan, justizia linguistikoaren inguruko ikasketek interes akademikoa sustatu dute teoria politikoaren arloan. Hizkuntza-justiziaren ikerketa-objektua nahiko espezifiko izan da, hala xede tematikoari nola muga faktikoei dagokienez. Nazioarteko publikora zuzendutako eta planteamendu abstraktu batez burutu-tako ikerketaren zati handi bat, esplizituki edo inplizituki, testuinguru historiko oso berezi batetik eratorritako inguruabar eta arazok eskainita edo sortuta dago (batez ere, Kanada). Beste lerro batek zehatzago aztertzen du, eta sarritan suhertasun handiz, hizkuntza babesteko zenbait metodo sendoren printzipio liberalekiko adostasuna, hala nola Quebecekoa, Baltikoko estatuetakoa edo Kataluniakoa: hots, hizkuntza-politiken muga liberaletan dago haren arreta-gunea. Hirugarren ikerketa lerro bat Europar Batasuna bezalako nazioz gaidiko entitateen hizkuntza-oinarriez arduratzen da. Aitzitik, estatu batzuetako hizkuntza-eredu interesgarriak, hala nola Finlandiakoa edo Suitzakoa, gutxiago hartzen ditu kontuan bibliografia horrek, nahiz eta han garatutako soluzio elebidunak edo eleaniztunak faktore indartsu izatera iritsi diren herrialde horien barne-kohesioan.

«Justizia linguistikoak» adigaia oso lausoa da. Ezein konstituziok ez du «justizia linguistikoak» aldarrikatzen. Zenbait ingurune eleaniztunetan, hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna konstituzioan errotuta dagoen printzipioa da, esplizituki edo inplizituki; eta, beraz, berdintasuna da goragoko printzipio konstituzionala, zeinaren arabera hizkuntza-politikak eta praktikak egokitu eta, dagokionean, aztertu behar baitira. Hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna beti ez denez betebeharrak konstituzional bat, edo, egotekotan, estatu barruko hizkuntza guztiak ez dituen nahitaz aintzat hartu behar, komeni da oinarri apalago batetik hasia: adibidez, hizkuntza-desberdintasuna egokitze edo orekatzeko ordenamendu juridikoak ahalbidetzen dituen aukerak aztertzea.

Teoriak eta praktikak erakusten duten bezala, hainbat egokitzapen eta egokitze maila posibleak dira: alegia, hizkuntza-aniztasuna antolatze hainbat hizkuntza-eredu posibleak dira, hiztunen nahiak betetzen dituztelarik. Argi dago, beraz, justizia linguistikoaren formaren bat, edozein delarik ere bere esanahia, ezin dela bilatu edo lortu gizarte jakin batetik kanpo. Gizarte batean ontzat jotzen den hizkuntza-eredua beste batean bazter dezakete: gizarte berean hizkuntza-eredu berak ez du zertan baliagarri izan behar hiztun-komunitate ezberdinentzat. Hizkuntza-ereduari buruzko erabakiak politikoak eta banakakoak izaten dira beti, eta herri-ordezkariei diskrezio handia aitortzen zaie hizkuntza-eredua eratzeko modua, egutegia eta metodoak hautatzeari dagokionez, kontuan hartuta gizartean dauden baldintza errealak eta horiek aplikatzeko antolaketa- eta finantza-baliabideen eskuragarritasuna.

Testu honetan, hizkuntzaren inguruko justizia/egokitzapen/berdintasunari buruzko eztabaidan hutsegite metodologiko bat dirudienari ekingo zaio. Hizkuntza-eskubideak ongi ezarritako kategoria gisa aurkeztu ohi dira, argi eta garbi bereizten diren eta berez guztiz operatiboak izan daitezkeen eskubide-multzotako gisa. Hala ere, Pattenek eta Kymlickak adierazi dutenez, «litekeena da hizkuntza talde guztiei aplikatzen zaien eskubide multzo bat definitzeko saiakerak, txikiak eta sakabanatuak direnak direla ere, azkenean erreklamazio apal samarretan zentratzea».³

Hizkuntza-eskubideak aitortzeak helburu desberdinetarako balio dezake, eta nozioak hainbat gauza barnera ditzake testuinguru ezberdinetan. Gizarte-zientzien ikuspegitik (teoria politikoa, soziolinguistika eta zuzenbidea), garrantzitsua dirudi testuinguru sozial eta legal ezberdinetan hizkuntza-eskubideen izaera, edukia eta

² Tove Skutnabb-Kangas eta Robert Phillipson, 'Linguistic Human Rights, Past and Present', in Tove Skutnabb-Kangas eta Robert Phillipson (arg.), *Linguistic Human Rights: Overcoming Linguistic Discrimination* (Berlin: Walter de Gruyter, 1994), 102 orr.

³ Alan Patten eta Will Kymlicka, 'Introduction: Language Rights and Political Theory: Context, Issues, and Approaches', in Will Kymlicka eta Alan Patten (arg.), *Language Rights and Political Theory* (Oxford: Oxford University Press, 2003), 35 orr.

oinarriak argitzeak. Bestalde, azpimarratu beharra dago hizkuntza-justiziak, berdintasunak edo egokitzape-
nak hizkuntza-eskubideez bestelako arau juridikoak ere behar dituztela. Politika-esparru hau konstituzio-izae-
rako kontu zabalagoekin lotuta dago: alegia, estatu eleaniztun eta/edo multinazional batean talde etnikoak
eta nazioak nola aintzatetsi eta egokitu behar diren, adibidez, autogobernurako gaitasuna aitortzetik estatu-
ko gobernua haiekin partekatzeraz.

Lan hau saiatuko da erakusten arazo batzuk daudela «giza eskubide *linguistiko*en» ikuspegiarekin, hizkun-
tza-eskubideei dagokienez. Lehenik eta behin, deigarria da mugen nozioa (termino soziolinguistikoetan adie-
razi beharko litzatekeena, hala nola praktikotasuna, masa kritikoa, kontzentrazio demografikoa, corpus eta
estatus balia bideen eskuragarritasuna, eta abar) ia ez da aipatzen «giza eskubide linguistiko» ikuspegian.
Mugen nozioa are premiazkoagoa da «giza eskubide linguistikoak» benetan giza eskubidetzat jo nahi badi-
ra, eskubideen kontzeptuak mugen nozio bat berezkoa baitu: elkarren artean eta errespetuzko beste balio
batzuekin talka egiten dutenez ezinbestean, giza eskubide gehienak ez dira absolutuak. Hori aspaldidanik
azpimarratua zuen hizkuntza gutxituak mantendu eta biziberritzeko konpromiso luzea izan duen aditu prestu
batek: demokrazia etnolinguistikoaren eredu batek mugen nozioren bat txertatu behar du.⁴

«Giza eskubide linguistiko» ikuspegiaren arazo nagusia egoera erreala nahasteko arriskua da, baita na-
zioarteko zuzenbidean eta zuzenbide konstituzionalean hizkuntza-eskubideak baliarazteko garrantzi handia
duten eskakizun eta baldintza juridikoak ahanztekoa ere. Gehiegizko espektatibek etsipenera eraman de-
zaketen esparrua da. «Giza eskubide linguistiko» aldarrikapenak kontraste handia egiten du nazioarteko
zein estatuko zuzenbide positiboaren eskakizunekin. «Giza eskubide linguistikoetara» bi modutan hurbiltzea
dago: batetik, balizko «giza eskubide linguistikoak» nazioarteko zuzenbideko arautzat hartzea, eta, bestetik,
idealtzat edo aldarrikapen abstraktutzat hartzea. Hurbilketa bietan arrisku bera dago «giza eskubide linguis-
tikoak» besterenezintzat hartuz gero: «giza eskubide linguistiko» urraketa masiboak eta are genozidio lin-
guistiko ugari ikustea.

Lan honek bi xede ditu. Batetik, hizkuntza-eskubideen karakterizazio zorrotza aldeztuko dut, ikuspegi juridiko
batetik. Ez dut iradoki nahi hizkuntza-eskubideen karakterizazioa arazo juridiko eskusiboa edo ia eskusiboa
denik (baina, zalantzarik gabe, arazo juridikoa ere bada). Aitzitik, nire argudioak ahalik eta leku gehien utzi
nahi die analisi politikoari eta politika publikoak eztabaidatzeari (eremu horietako adituek egin beharko lituz-
ketenak). Hizkuntza-eskubideen eta giza eskubide unibertsalen arteko asimilazio edo are gehiago berdinketa
orokorra ekuazio okerra izateaz gain, zuzenbidearen eta politikaren arteko harremanaren irudi desitxuratua
dakarrela argudiatuko dut. Giza eskubide unibertsalek estatuaren jokabidea mugatzea badute helburu eta
prozesu politikotik at badaude (modu idealean behintzat), hizkuntza-eskubideak prozesu politikoaren bidez
eratzten eta eraldatzen diren elkarbizitza antolatzekeo tresnak dira.

Bestetik, mundu osoan aitortutako hizkuntza-eskubideak bost eredu normatibotan sailkatuko ditut: giza es-
kubideen eredu, gutxiengo «berrien» eskubideen eredu, herri indigenen eskubideen eredu, «aintzinako»
gutxiengo eskubideen eredu eta hizkuntza ofizialen eskubideen eredu. Zera argudiatuko dut: Nahiz eta
arau-eredu horiek, praktikan, testuinguruaren arabera gogoeta nahasietan inspiratuta egon, neurri bateraino
justizia linguistikoaren nozioa barne, printzipioz oinarri filosofiko eta juridiko ezberdinetan oinarritzen dira
eta oso bestelako kezkak adierazten dituzte, alegia, autonomia eta garapen pertsonala, gizarte-integrazioa
eta -kohesioa, babes etnokulturala edo integrazio politikoa. Herralde desberdinetan zenbait gizarte-seg-
mentuentzat aitortutako hizkuntza-eskubideek antz handia dute eduki juridikoari dagokionez (adibidez,
ama-hizkuntzaren irakaskuntza izateko eskubidea edo agintariekiko harremanetan norberaren hizkuntza era-
biltzekoa), baina horren azpian dagoen justifikazioa ez da beti bera izango. Horrek nire lehenengo premisara
bueltan eramango gaitu: hizkuntza-eskubideak, funtsean, prozesu politikoaren bidez moldatzen direla.

⁴ Joshua A. Fishman, 'On the Limits of Ethnolinguistic Democracy', in Tove Skutnabb-Kangas eta Robert Phillipson (arg.), *Linguistic Human Rights: Over-coming Linguistic Discrimination* (Berlin: Walter de Gruyter, 1994), 49 orr.

Hizkuntza-eskubideen definizioa

Nazioarteko eta estatuko zuzenbidean hizkuntza-eskubideen azterketan sartu aurretik, egokia dirudi hizkuntza-eskubideen nozioa labur definitzea. Batzuentzat, ia ezinezkoa dirudi horrek. Baina badirudi zurrera dela esatea gizakien nahiz estatuaren jardura legearen bidez arautzeak beti dakarrela, esplizituki edo inplizituki, hizkuntza alderdi bat. Beraz, hizkuntza-eskubideak erakunde publikoek hainbat esparrutan hizkuntzaren erabilaren inguruan hartzen dituzten arauak dagozkie. Konstituzioari dagokionez, hizkuntza-eskubideak hizkuntza jakin bati edo hizkuntza-talde txiki bati dagozkie.

Hala ere, ezin daiteke aiantz hizkuntza-eskubideen nozioak aiantz hartzen duen kezka gehiengo-hizkuntza erabiltzen ez duten hiztunen egoera juridikoa izaten dela. Bi hizkuntza edo gehiago ofizialki aitortzen direnean, arau juridikoetan edonori hizkuntza ofizial bat edo batzuk erabiltzeko eskubidea bermatzen dion idazkera generikoa erabili arren, eskubide horien helburua izaten da hizkuntza gutxituko hiztunek beren hizkuntza hainbat esparru publikotan erabili dezaten gehiengoaren hizkuntza erabili beharrean.

Jakina, hizkuntza nagusietako hiztunek ere badituzte hizkuntza-eskubideak, espresuki jasota egon edo ez. Eskubide horiek gizarte-arauek eta -praktikek ondo bermatzen dituzte, haien eskubideak konstituzioak edo legeek ezartzen ote dituzten kontuan hartu gabe. Baliteke hizkuntza bakarraren erabilera onargarria arautzen duten hizkuntza-barneko arauetarako egotea: eskola-sistema nazional baten barruan dialekto bat ezartzeak halarik beharrez mesede egiten dio klase bati edo eskualde bati beste batzuen gainetik, eta kalte egiten die dialekto "ez-estandarretako" jatorrizko hiztunei, hizkuntza bat ofizialtzat jotzeak hizkuntza ez-ofizialtako jatorrizko hiztunei kalte egiten dien bezainbeste. Hala ere, bibliografia orokorrak eta nazioarteko dokumentuek askotan ez dituzte aiantz hartzen edo espresuki baztertzen dituzte hizkuntza barruko gatazka horiek beren arduraren eremutik. Adibidez, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak (ikus aurrerago) bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu, berariaz, "Estatuko hizkuntzaren edo hizkuntza ofizialen dialektoak"; gainera, diskrezio handia uzten die Gutuna sinatu nahi duten estatuei, beren lurraldean zein diren "eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak" eta zein "dialekto" hutsak erabakitzeko.⁵

Hizkuntza-eskubideen barruan bi kategoria bereiz daitezke bere orientazio nagusiaren arabera. Beste modu batez esanda, ordenamenduak hizkuntzei edo beren hiztunei ematen dien babesak bi motakoa izan daitezke: batetik, hizkuntza-tolerantziaren erregimena, hizkuntza gutxituen hiztunak diskriminaziotik eta asimilaziotik babesten dituzten eskubideak barne hartzen dituena; bestetik, hizkuntza-sustapenaren erregimena, funtsezko zerbitzu publikoetarako —hala nola hezkuntza, herri-administrazioa, justizia eta hedabideak— zenbait eskubide "positibo" aitortzea edo etorkizunean sortzea barne hartzen duena.

Batzuek argudiatu dute lehen aipatutako bereizketak badituela nahitaez egiazkoak ez diren inplikazio batzuk, bestak beste: a) erregimen tolerante bat benetan den baino askoz aukera egingarriagoa dela; b) hizkuntza jakin bat aiantz hartzeko edozein neurrik hizkuntza eta kultur hori babestea duela helburu; eta c) autonomia eremu indibidualak edo kolektiboak interferentziarik gabe babestea nahikoa dela horrela berezko kultura eta hizkuntzaren adierazpen gune aktiboak sortzeko eta bilakatzeko. Kritika nagusia, dirudienez, zera da: estatuak ezin duela neutraltasun linguistikoa perfektua bermatu, printzipioz, neutraltasun erlijiosoa bermatuz bezalaxe; estatuak hizkuntza zehatz bat izendatu behar duenez gizarte-zerbitzuak emateko eta

⁵ Dialektoen babes juridikoaren inguruan gutxi idatzi da. Giza Eskubideetarako Europar Auzitegiak behin okupatu zen legez babestuta zegoen dialekto bat erabiltzearen norbanako batek jasandako diskriminazioaz: ikus 2023ko otsaileko 7ko epaia, *Paun Jovanović v. Serbia* (Application no. 41394/15).

herritarrekiko harreman linguistikoa arautzeko, horrek, ezinbestean, horretarako hautatu den hizkuntza bera duen hiztun-komunitateari baino ez dio mesede egiten.

Nire iritziz, oraindik arrazoi onak daude askatasun negatiboen eta eskubide positiboen arteko bereizketa erabiltzeko hizkuntza-eskubideen inguruko eztabaida juridiko baterako. Lehenik eta behin, aipatutako inplikazioak testuinguruko adimenen emaitza izan daitezke, eta ez izaera tekniko duela dirudien bereizketa bati dagokion zerbait. Errespetura eta sustapenera bideratutako eskubideak bereizteak erabateko isiltasuna gordetzen du estatuak eremu horretan neurriak hartzeraz bultzatzen dituzten arrazoi zehatzen gainean. Sustapenera bideratutako eskubideak gutxiengo linguistikoaren kide helduek adierazitako nahiez bestelako arrazoiengatik ere eman daitezke: adibidez, interes publiko bat eskola-adinean dauden gutxiengoetako haurrek, gutxienez lehen hezkuntzan, hezkuntza eraginkor bat izatea; ondare kultural nazionala zaintzea; edo legeria eta beste zerbitzu publiko batzuk herritar guztien eskura jartzea.

Bigarrenik, hizkuntza-eskubideek modu espezifiko batzuetan funtzionatzen dute gizabanakoaren egoerari dagokionez, bai eta estatuaren botereen erabilerari dagokionez ere. Oinarrizko eskubideen teoriak oinarrizko hiru funtzio bereizten ditu (oinarrizko hiru arau-egiturari dagozkionak) gizabanakoaren eta estatuaren arteko harremanean: *status negativus*, *status positivus* eta *status activus*. Hiruko banaketa hori aurrekoa baino osoagoa da, printzipioz, herritarren parte hartzea ere aintzat hartzen baitu.

Estatus negatiboa norbanakoa estatuaren esku-sartetik libre uzteari dagokio. Estatus positiboa norbanakoak estatuaren esku-hartze aktiboa behar dueneko inguruabarrei dagokie: estatus positiboari dagozkion eskubide garrantzitsuenetako bat babes judiziala da, baina gaur egun hainbat eskubide sozial modu batera edo bestera aitortzen dira (hezkuntza, etxebizitza, osasun-arreta, gizarte zerbitzuak etab.). Estatus aktiboa gizabanakoak duen askatasuna estatuaren antolakuntzan edota estatuarentzat erabiltzeko dagokio: parte hartzeko modu eta tresna ugari bidez. Kontzeptu horiek gizabanakoaren eta estatuaren arteko *harremana* egituratzeko interpretatu dira, baina gutxiengoaren ezaugarriak (*status* positiboa) babesteko eta gutxiengoaren ordezkari instituzionalerako eta partaidetzarako (*status* aktiboa) behar bereziak heltzeko tresna analitiko erabilgarria ere ematen dute. Azpian dagoen ideia honako hau da: diskriminazioaren debeku orokorra eta beste eskubide indibidual klasiko batzuek dakarten babesa ez direla nahikoak gutxiengoak erabat babesteko, eta beroriek gizartean duten posizio ahuldua orekatzeko babes konstituzional areagotua ematea justifikatzen duela. Hots, tolerantzia eta sustapena ez ezik, parte hartzea ere bermatu behar zaie hizkuntza-gutxiengoei, are gehiago aldi berean gutxiengo nazionalak direnei. Edonola, tolerantzia/sustapena kontzeptu-bereizketak baliagarria jarraitzen du izaten hizkuntza-politiken ebaluazio soziolinguistiko eta juridikoan, hizkuntza-gutxiengoaren behar bereziak kontuan hartzen baititu.

Hirugarrenik, hizkuntza-eskubideen bi kategoria bereizteak garrantzi praktikoa du betearazteko orduan. Batetik, hizkuntza-eskubideek barne hartzen dute askatasunez aukeratzeko eta norbere hizkuntza erabiltzeko askatasuna eta hizkuntza gaietan eta identitatean interferentzietatik libre egoteko askatasuna. Hizkuntza-eskubide horiek baliatzeko estatuak ez du ezer egin behar, berehala eta zuzenean aplikagarriak baitira. Aldiz, oinarrizko zerbitzu publiko guztiak edo batzuk hizkuntza jakin batean jasotzeko eskubideak gozatzeko, lege-arauek betearazpen mota ezberdinak ezartzen ohi dituzte, aplikazio zuzenetik hasi eta xedapen programatikoetaraino. Orohar, hizkuntza-eskubide positiboak konstituzioan aldarrikatuta egon arren, izaera programatiko hutsa duten arauetan jasota egoten dira: horrek esan nahi du estatu botereek (legegileak, gobernuak, administrazioak) jardun behar dutela herritarrek eskubide horiek baliatu ahal ditzaten. Laburbilduz, mota ezberdineko agintari publikoen parte-hartzea beharrezkoa izaten da. Segurtasun juridikoaren izenean, hizkuntza-eskubide positibo horiek legeetan jasota ez ezik, ahalik eta gehien zehaztuta egon behar dute. Bestela, norbanakoek ezingo dituzte agintari publikoak behartu eskubide positibo horiek ematera.

Hizkuntza-eskubideen izaera politikoa

Hizkuntza-eskubideek egile batzuek iradokitzen dutena baino izaera polemikoagoa dute. Ez dago hizkuntza eskubideen ulertze unibertsalik.

Nazioarteko zuzenbideak ez du ematen hizkuntza-aniztasuna egokitzeko ezinbesteko edo eredu definitiborik, ezta printzipio eta arau argirik ere. «Giza eskubide linguistiko» gutxi batzuk daude, berez izaera negatiboa dutenak, eta gizarte demokratikoetan duten garrantzi praktikoa murrizten ari da; gizarte horietan ez dago hizkuntza gutxituak hitz egiteko debekurik, ezta eremu pribatuan erabiltzeko aukerak den edozein hizkuntza ere. Giza eskubide linguistikoak, orain nazioarteko zuzenbidean dauden bezala, ez doaz puntu horretatik askoz harago. Beraz, erabakigarria ez da giza eskubideen arauen edukia edo hedadura nazioarteko tresna juridikoen arabera, baizik eta estatu barruko konstituzio- eta legegintza-tresnek emandako bermeen edukia eta hedadura.

Hizkuntza-eskubideak tokian tokiko aldarrikapenak dira: historian eta konpromiso politikoetan errotutako bermeak, ez unibertsal finkoak. Konstituzioek eta estatuetak ordenamendu juridikoei askotariko konponbideak, ikuspegiak eta arau-ereduak erakusten dituzte. Oro har, hizkuntza-eskubideak ez daude ere oinarritzko eskubideen erdigunean.⁶ Hori, berriro, «giza eskubide linguistikoak» nozioaren aurka doala dirudi. Hizkuntza ofizialaz edo hizkuntza ofizialez bestelako hizkuntzen erabilera edo onarpenari buruz estatuak beren legedian hartu dituzten hizkuntza-eskubideei buruzko ikuspegi dibergenteek agerian uzten dute zaila dela printzipio komunak giza eskubide unibertsal gisa ezartzea.

Ondorioz, hizkuntza-eskubideen aitortza eta haien aurrealdintzak kontu politikoak dira. Hizkuntza eskubideak estatu mailan eraikitzen dira nagusiki. Estatu demokratikoetan dauden irtenbideak –horietara mugatuz– oso heterogeneoak dira, hizkuntza-gaiei buruzko ideiak eta diskurtsoak nabarmen aldatzen direlako. Beraz, dauden eredu ezberdinak filosofia eta ideologia politiko ezberdinetan ez ezik, printzipio juridiko ezberdinetan ere oinarritzen dira. Printzipio bera aplikatzeak (adibidez, herritarrak legearen aurrean berdinak izatea) kontrako hizkuntza erregimenak eragin ditzake desberdin ulertzen denean: adibidez, Frantzia erregimen elebarkarra izatea batetik, eta Kanadan, Belgikan eta Suitzan federazio elebidun edo eleaniztunak izatea bestetik. Beraz, Europan ere, balio komunak badituela behin eta berriz aldarrikatzen duen munduko eskualde jakin horretan, hizkuntza-ereduetan aldakortasun handia dago.

Estatuak hizkuntza-eskubideak aitortzeko dituzten motibazioak ere heterogeneoak dira: eskuzabaltasuna, justizia, ongizatea, nagusi diren eta ez diren taldeen arteko botere harremanak, elkarrekikotasuna beste estatu batzuek berezko gutxiengoei ematen dieten trataerarekiko eta estatuaren independentzia lortu edo berreskuratzeko baldintza gisa ezarritako betebeharrak. Horien zati batek baino ez du giza eskubideekin edo hizkuntza-justiziarekin zerikusia, zentzu hertsian.

Horrek ez du esan nahi hizkuntza gutxituetako aktibistek balio unibertsalak eta giza interesak (hala nola justizia, duintasuna, segurtasuna edo berdintasuna) aipatu behar ez dituztenik bidezkotzat jotzen ez dituzten hizkuntza-politiken aurka egiteko. Eta egia da giza eskubideei buruzko arauak bilaka daitezkeela denboran zehar, eta hizkuntza-eskubideak giza eskubideen sisteman txertatzeko aukerak aztertzen jarraitu behar dugula. Baina joko eremu nagusiak estatu barrukoa jarraituko du izaten denbora luzez.

⁶ Salbuespena Kanadako arauketa da: han “official language rights” delakoek oinarritzko izaera dute praktikan.

Hizkuntza-eskubideen bost eredu

1. Giza eskubideen ereduak

1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren geroztik giza eskubideei buruzko nazioarteko agiri kopurua biderkatu den arren, horiek guztiek aitortzen dituzten hizkuntza-eskubideen izaera eta irismena oso mugatuak dira. Jakina, giza eskubideen arau berriak sor litezke arlo horretan, baina horrek ez dirudi gertatuko denik etorkizun hurbilean.

Giza eskubideen nazioarteko tresnek hizkuntza-tolerantziaren oinarritzko araubidea eskaintzen dute, hau da, diskriminazioaren eta asimilazio-modu desberdinen aurkako babes, hala nola bortxazko edo nahitaezko asimilazioa eta asimilazio degradatzailea. Babes hori ez da ematen hizkuntza-eskubide espezifikoaren bidez, baizik eta hizkuntza-dimentsio inplizitua duten giza eskubide orokorren bidez, hala nola diskriminazioaren aurkako neurriak hartzeko eskubidea, adierazpen-, bilera- eta elkartze-askatasuna eta bizitza pribatua eta familiarra errespetatzeko eskubideak. Edozein pertsonari ematen zaizkio babes horiek, gutxiengo bateko kide izan edo ez.

Giza eskubideen oinarri morala giza duintasuna da, eta autonomia pertsonala eta nortasunaren garapen askea ditu helburu. Ondoren, ideia hori gehiago azalduko dut, askotan hizkuntza-eskubideen testuinguruan agertzen diren bi giza eskubideren laguntzaz.

- a) Adierazpen-askatasunak adierazpen-hizkuntza aukeratzeko askatasuna barne hartzen du. Quebec frankofonoan publizitate komertziala ingelesez egiteko eskubidearekin lotutako kasu batean, estatuak Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966) betetzen dutela gainbegiratzeko sortutako organoak – Giza Eskubideen Batzordeak – honako hau adierazi zuen 1993an:⁷

Estatu batek hizkuntza ofizial bat edo gehiago aukera ditzake, baina ezin du baztertu, bizitza publikoaren esparruetatik kanpo, berak aukeratutako hizkuntza batean mintzatzeko askatasuna.

Giza Eskubideen Batzordearen aburuz, Kanadako ingeles hiztunak ezin ziren gutxiengo linguistikotzat hartu, estatu horretan gehiengo osatzen dutelako. Hala ere, horrek ez du esan nahi haien hizkuntza portaera giza eskubide orokorrek babesten ez dutenik. Aipatutako kasuan, Giza Eskubideen Batzordeak adierazpen askatasunaren babesaren esparruan sartu zuen aire zabaleko publizitate komertziala. Esan beharra dago adierazpen askatasuna Quebec frankofonoan bizi diren eta frantsesez hitz egiten ez duten edo esparru pribatuan hitz egin nahi ez duten pertsonen izenean babestu zela.

- b) Askotan, prozedura judizialean interpretea izateko eskubidea hizkuntza-eskubide gisa aurkezten da. Auzitegiaren erabiltzen den hizkuntza ulertu edo hitz egin ezin bada, interprete baten doako laguntza izateko eskubidea ondo finkatutako giza eskubidea da, eta akusazio penal baten aurrean dagoen edonori aplikatzen zaio. Interprete bat izateko eskubidearen xedea ez da ezein hizkuntza edo edozein hizkuntza-identitate onartzea, babestea edo sustatzea. Horren justifikazioa ez dago hizkuntzen edo hiztunen duintasu-

⁷ Human Rights Committee of the United Nations (1993), *Ballantyne, Davidson, McIntyre v. Canada* (Communications Nos. 359/1989 and 385/1989).

nean babestean, epaiketa justua bermatzean baizik. Zuzenbidearen helburu bakarra, nolabait esatearren, «justizia juridikoa» da eta ez «justizia linguistikoa». Ez du modu independentean baloratzen akusataren ama-hizkuntza edo berak hitz egiten duen hizkuntza. Akusatuak akusazioa edozein hizkuntza erabiliz ulertu eta bere lekukotza auzitegiak ulertzea lor badezake, bere ama-hizkuntza ez den edo adierazteko gogo-koena ez duen hizkuntza baten bidez bada ere, lege-sistemak ulertuko du komunikazio eraginkorra behar bezala gauzatu dela epaiketa justuaren efektuetarako. Hizkuntza gutxitu baten aldeko bermeak, ordean, bestelako egokitze mota bat suposatzen du, hizkuntza gutxituen aldeko zerbitzuak ematea hizkuntza nagusiaren ezagutzeko oztopo ez ohi den neurrian.

Hizkuntza-eskubideen, batetik, eta epaiketa justu baterako eskubidearen arteko demarkazioa, bestetik, ondo ezarri zuen Kanadako Auzitegi Gorenak R. v. Beaulac auzian 1999an:

Epaiketa inpartzial baterako eskubidea unibertzala da, eta ezin da handiagoa izan hizkuntza-komunitate ofizialeko kideentzat beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztenentzat baino. Hizkuntza-eskubideek jatorri eta zeregin guttiz desberdinak dituzte. Herralde honetan ofizialak diren gutxiengo linguistikoak babestera eta frantsesaren eta ingelesaren baldintza berdintasuna bermatzera bideratuta daude.

- c) Nahiz eta giza eskubideen nazioarteko tresnek formalki ez aitortu, nazioarteko tresna horiek jasotzen duten giza eskubideen multzotik oinarrizko hizkuntza-askatasun batzuk erator daitezke: gutxienez, norberak lehenetsitako hizkuntzan adierazteko askatasuna, eta lehenetsitako hizkuntzan bizitza pribatua eta familiarra bilakatzeko eta diskriminaziorik gabe bizitzeko eskubidea. Eskubide unibertzalak diren hizkuntza-askatasun horiek ez daude lurraldez mugatuta, eta norbanako guztiek dituzte eskubide horiek, hitz egiten duen hizkuntza edozein dela ere. Adierazpen-askatasunak barne hartzen du ama-hizkuntza edo beste edozein hizkuntza erabiltzeko eskubidea, bai hizketan bai idazketan. Hizkuntza-intolerantzia eta errepresioa bateraezintzat jotzen dira giza eskubideekin. Hizkuntza-askatasunak hizkuntza-jokabidea esparru pribatuan libreki zehazteko eta kudeatzeko eskubidea baino ez du bermatzen. Haren irismena esfera pribatua da. Kontua ez da gutxiengoaren askatasun behar partikular bat, askatasun orokor eta abstraktu bat baizik: norbanakoak beren izaera abstraktuan hartzen dira, ez gehiengoaren edo gutxiengoaren kide gisa.

Zalantzarik gabe, giza eskubideetatik eratorzen diren hizkuntza-eskubide horiek ahulak dira: hizkuntza-eskubide negatiboak funtsean. Gaur egun gutxi dira agerian ukatzen dituzten gobernuak: lehenik, giza eskubide unibertsalean oinarritzen baitira; bigarrenik, tradizio liberalarekin eta autonomia pertsonalean eta herritarren berdintasunean gobernuak jartzen duten enfasiarekin erabat koherenteak baitira. *Laissez-faire* linguistikoaren aldekoek behin eta berriz esaten dute hizkuntza-eskubide negatibo horiek nahikoak direla, eta inork ez duela gehiago merezi komunitate jakin bateko kide izateagatik.

Hala ere, eremu urriko hizkuntzak babestu nahi dituzten hizkuntza-komunitateek gutxi izango dute poztekoa, beren hizkuntzaren etorkizuna defendatzeko baliabide bakarrak estatuaren legez kontrako esku-sartzearen aurkako babes judiziala eta diskriminazioaren debekua baldin badira. Beraz, komunitate batzuek aldarrikapen indartsuagoak egiten dituzte, hots, hizkuntza-eskubide positiboak erreklamatzeko dituzte. Hizkuntza-eskubide indartsuago horiek asko aldatzen dira beren irismenean. Gutxienez, hezkuntza arloko eskubide eta zerbitzuak barne hartzen ohi dituzte; aspirazioak handik gora doazen heinean, hizkuntzan bizitzeko eskubidea gozatzea ere mahaigaineratzen da.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea erabat aldatu egiten da tolerantziatik agintari publikoek gutxiengoaren hizkuntza erabili eta sustatzera pasatzen garenean. Nazioarteko giza eskubideen arabera, agintariak ez dute inolako betebeharririk pertsonen ama-hizkuntzak edo lehenetsitako hizkuntzak sustatzeko. Dena dela, badira zenbait betebeharrak hizkuntza gutxiengoetako kideei bereziki dagozkienak.

2. «Aintzinako» gutxiengoen eskubideen eredia

«Aintzinako» gutxiengoen aldeko eskubideek hiru aterpe edo oinarri mota izan dezakete: nazioarteko zuzenbideko betebeharrak (unibertsalak eta kontinente bakoitzekoak), nazioarteko aldeko akordioak eta estatu barruko legeria. Xehetasun pixka batekin aipatuko ditut, motibazio ezberdinak adierazten baitituzte.

- a) Nazioarteko zuzenbideari dagokionez, estatuei ezarritako betebeharrak juridikoak urriak dira eta ez dute “hozkada juridikorik”. Izan ere, ez dago inolako betebeharrak sinesgarriak hizkuntza gutxituak mantentzearen edo biziberritzearen alde egiteko. Horri buruzko xedapen giltzarria —eta bakartua— Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 27. artikulua da:

Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistikoak dauden estatuetan, gutxiengo horietako pertsonen ez zaie ukatuko, euren taldeko beste kide batzuekin elkartuta, euren kulturaz gozatzeko, euren erlijioa izan eta praktikatzeko edo euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea.

Hitz gutxi horiek dira nazioarteko zuzenbide loteslearen berariazko xedapen bakarra hizkuntza gutxitueta-ko hitzunen babesari dagokionez. Bistan da klausula horrek auzi asko uzten dituela argitu gabe. Adibidez, EZPNI 27. artikulua emandako eskubideen irismenaren inguruan nolabaiteko eztabaida dago: ea soilik izaera negatibokoak diren (interferentziaren aurkako babes) edo estatuak gutxiengoen kideen izenean neurri positiboak hartzeko duen betebeharrak barneratzen duten. Xedapen hori estatuei neurri positiboak hartzeko betebeharrak inposatzea dela uste duten egileek berek ere aitortu behar dute estatuak ez daudela behartuta jarduerara edo neurri zehatzik gauzatzera. Horrela dio aditu batek:⁸

Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 27. artikulua artikulua ahula da (...). Haien espezifikotasun faltak esan nahi du, gutxiengoen identitatea babesteko estatuei betebeharrak positiboak ezar badiezazkieke ere, artikulua diskrezio handia uzten diela estatuei horiek aplikatzeko modalitateen inguruan.

Hala ere, egia bada EZPNI 27. artikulua ez duela zehazten zer agintzen duen, ezin daiteke ondorioztatu eduki gabea denik. Artikulu hori ez da xedapen programatikoa, ezta nahitaezko efekturik gabeko printzipio-adierazpena ere. Nazioarteko zuzenbidean ohikoa denez, estatuei dagokie hori betetzeko beharrezko neurriak zehaztea. 27. artikulua helburua baino ez du identifikatzen —gutxiengoen ezaugarriak errespetatzea eta egokitzea: hizkuntza, kultura eta erlijioa—, eta betebeharrak hori betetzeko politika bat lantzea inplizituki eskatzen die estatu sinatzaileei. Horretarako, estatu mugen barruan dauden gutxiengo linguistikoaren kide kopurua ezin da hutsala izan.

- b) Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak (1992) eta Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmenak (1995), biak Europako Kontseiluaren babespean prestatutako nazioarteko itunak, egun munduan dagoen gutxiengoen aldeko nazioarteko babesaren kontzepturik aurreratuen jasotzen dute. Hizkuntza gutxituak babesteko nazioarteko lehen tresna juridiko delarik, Europako Gutuna aitzindaria izan da bere lorpenetan. Nabarmen aurrera egiten dute bere arauak, estandar unibertsalak oso eskasak diren eremuetan. Gainera, gomendio, adierazpen edo ebazpen asko ez bezala, Gutunaren edukia loteslea da berretsi duten estatuentzat; eta Aditu Batzorde bat dago estatuak betetzen dutela gainbegiratzeko.

⁸ Patrick Thornberry, *International Law and the Rights of Minorities* (Oxford: Clarendon Press, 1991), 387 orr.

Aipatu Gutunaren helburua ez da hiztunei eskubiderik aitortzea, baizik eta eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzak babestea, Europako kultura-ondarearen zati diren heinean. Arreta-gunea hizkuntzak dira, ez hiztunak. Gutunak ez ditu hizkuntza-*gutxiengo*en eskubideak definitzen, eskualdeetako edo eremu urriko *hizkuntzak* babesteko estatuek hartu beharreko neurriak baizik. Eremuz eremuko neurri horiek hizkuntza bakoitzaren egoera eta beharretara egokitzen dira. Gutuna sinatzen duten estatuek bi alderditan daukate aukeratzeko askatasuna (murriztua). Batetik, estatu bakoitzak Gutunaren aplikazio-eremuan sartu nahi dituen eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzak zehatz ditzake. Bestetik, beren lurraldeko hizkuntzetara hobeto egokitzen diren neurriak aukeratu behar dituzte, hizkuntza horiek hitz egiten dituzten pertsonen taldeek adierazitako beharrak eta nahiak kontuan hartuta. Aukeran daudenetatik 35 paragrafo edo azpiparagrafo aukeratu behar dituzte gutxienez. Muga horiek errespetatuta, nahierako sinadura moduko bat da (*à la carte*). Aukeran dauden betebeharrekin batera hainbat salbuespen daude (ahal den neurrian, beharrezkoa denean, erabiltzaile-kopuruak justifikatzen badu), estatuei ekintza-askatasuna ere ahalbidetzen dietenak.

- c) Hizkuntza-eskubideak nazioarteko edo estatuarteko berariazko akordioen bidez ere aitortu ahal izango dira. Eredu hori, batez ere XX. mendean, estatu baten eskuetatik beste batzuetara igaro diren mugako lurraldeei aplikatu zaie (Åland uharteak Finlandian, Alemania eta Danimarkaren arteko mugaldea, Hegoaldeko Tirol eta gutxiengo esloveniarrak Italian), edo Bigarren Mundu Gerraren ondoren, subiranotasuna lortu edo berreskuratzeko, nazioarteko betebeharren multzo bat sinatu behar izan duten estatuei (Austria). Kasu horietan, hizkuntza-eskubideen hedapena estatuko lurraldearen zati txiki samar batera mugatzen ohi da: eskubideak aitortzeko eredu horren nazioarteko/estatuarteko oinarriak irismen mugatua du, talde etniko jakin bat lurralde jakin batean; ez du eragozten dagokion estatuak hizkuntza-eskubideak ukatzea beste lurralde batzuetan finkatutako beste hizkuntza-komunitate batzuei. Denbora luzez, nazioarteko itun espezifikoek edo halako aldeko akordioek babestutako gutxiengoak nahiko segurutzat eta pribilegiatutzat jo ziren, beste gutxiengo batzuekin alderatuta. Orainsuago, XX. mendean azken hamarkadan, Alemaniak, Hungariak, Errumaniak eta beste estatu batzuek aldeko akordioak egin zituzten Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialde jakin batzuekin, eta, ondorioz, alderdi diren estatuek gutxiengo espezifikoak babestu eta haien aldeko neurriak hartu behar dituzte. Aldeko akordio horiek betebeharrak apal samarrak dituzte, nazioarteko beste tresna batzuekin alderatuta.
- d) Azkenik, gutxiengoaren eskubideetarako oinarri juridiko egokiena estatu barruko legedia da. Europa Erdialdeko eta Ekialdeko konstituzio moderno gehienek gutxiengoaren aldeko eskubideak aitortzen dituzte, zenbait hizkuntza-eskubide positibo barne. Hizkuntza gutxitu batean edo ama-hizkuntzan hezia izateko eskubidea Albanian (20. artikulua, 2. idatz-zatia), Azerbaijanen (45. artikulua), Bielorrusiaren (50. artikulua), Hungarian (68. artikulua, 2. idatz-zatia), Mazedonian (48. artikulua, 2. idatz-zatia, lehen eta bigarren mailako irakaskuntzari dagokionez bakarrik), Moldaviako Errepublika (35. artikulua, 2. idatz-zatia). Europako beste estatu batzuek gutxiengoaren babesa aitortzen dute legezko xedapenen bidez (Alemania, Txekiar Errepublika, Herbehereak).

«Aintzinako» gutxiengoaren aldeko eskubideen oinarri moralak ideia honako hau da: gutxiengoetako kideek (linguistikoek, erlijiosoek eta kulturelekin) babes behar bereziak dituzte gehiengo etniko, linguistiko edo erlijiosoetako kideekin alderatuta. Asimilazioaren eta akulturazioaren aurka babestuta egon nahi dute. Aldi berean, kontsiderazio instrumentalak egon daitezke. European, pentsamendu-eskola batek gutxiengoak babestearen alde egin izan du tradizioz, bakearen eta barne- eta eskualde-gatazken prebentzioaren mesedetan. Pentsamendu-eskola horrek nazioarteko agendan eragina izatea lortu zuen Lehen Mundu Gerraren ondoren eta laurogeita hamarreko hamarkadako komunismoaren kolapsoaren ondoren. Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundeak (ESLE) Gutxiengo Nazionalerako Goi-komisarioak, 1992an ezarritako, ESLEn parte hartzen duten estatuen arteko bakea, egonkortasuna edo adiskidantzazko harremanak

nak arriskuan jar zitzaketen tentsio etnikoak identifikatu eta konponbide azkar bat bilatzeko agindua jaso zuen. Eginbehar hori gauzatzeak eragina izan dezake barne-zuzenbidean hizkuntza-eskubideek duten irismenean.

Oro har, Europa kontinentalean mesfidantza txikiagoa dago sistema konstituzional angloamerikarretan baino gutxiengoaren aldeko eskubide positiboaren ideiarekiko. Aldiz, sistema konstituzional angloamerikarrek ez dirudite hain uzkur etorkinei edo gutxiengo berrietako kideei erraztasunak emateko.

3. Gutxiengo «berrien» eskubideen eredua

Nazioarteko arau batzuk egin badira ere, batez ere langile migratzaileentzat, etorkinak, herritar berriak edo gutxiengo «berriak» deiturikoen aldeko hizkuntza-erraztasunak, egotekotan, estatuko zuzenbidean oinarrituko dira. Gure helburuetarako, doikuntza horiek eskubide gisa zenbatzen diren zerbitzuen zerrendan sartu behar dira, konstituzioak edo legeek aitortzen ez dituzten arren, lege azpiko eta toki-araudien eta administrazio-praktiken bidez.

Jurisdikzio batzuetan, etorkinei eta haien senideei edo, are gehiago, gutxiengo berrietako kideei eskubideak edo erraztasunak ematen zaizkie ondorengo bermatzeko: bertoko hizkuntza ez jakiteak ez duela oztopatu hezkuntza eraginkor baterako sarbidea, ez eta estatuko bizitza orokorrean integrazioa. Neurri horiek «antzinako» gutxiengoei emandako sustapen eskubideak bezain positiboak eta funtsezkoak izan daitezke edukiaren aldetik, eta interes orokorrean ere aitortzen dira, hizkuntza-gutxiengoaren kide helduek adierazitako eskaerak edo nahiak edozein direla ere. Estatuak interes publikoa izaten du eskola-adinean dauden hala gehiengoaren nola gutxiengoaren haurrak, gutxienez lehen hezkuntzan, hezkuntza egokia jasotzeko, beharrezkoa bada ama-hizkuntzaren behin-behineko irakaskuntzaren laguntzaz; edo herritar guztien eskura jartzeko lege- eta administrazio-testuak, administrazio-ereduak eta beste zerbitzu publiko batzuk, edozein hizkuntzatan hitz egiten dutela ere. Horren ondorioz, asko erabiltzen diren lege- eta administrazio-testuak itzul daitezke, eta langile elebidunak kontrata daitezke zerbitzu zehatzetarako (udala, hezkuntza, gizarte- eta osasun-zerbitzuak, etab.).

Neurri horiek politika publiko baten adierazpena dira, zeinak kontuan hartzen baititu, etorkin edota herritar «berrien» bizileku-behar bereziak ez ezik, estatuaren azken helburua ere, estatu-komunitatearen integrazioa eta kohesioa lortzea. Bistan denez, politika publikoko erabaki gisa, erabaki politikoa zein distributiboa da. Beraz, arduradun politikoei zilegi dute eskakizun batzuk aintzat hartzea: zerbitzuetan hizkuntza erraztasunak emango dira eskari esanguratsu bat baldin badago, edo arrazoizkoa bada inguruabarretan, edo udalerritan bizi diren edo zerbitzu publiko bat erabiltzen duten etorkinen kopuruak hala justifikatzen duenean.

Batzuek argudia dezakete etorkinentzako hizkuntza-egokitzapenak ez duela helburu hizkuntza-justizia, onginahia baizik. Hala ere, Estatu Batuetan, horrelako neurriak berdintasun-irizpidean oinarritu dira. Berdintasunaren printzipio konstituzionalak berdina denari tratua bera eta bestelakoa denari bestelako tratua ematea eskatzen du. Etorkinek behar bereziak dituzte lehen hezkuntzako hizkuntzari eta oinarritzko gizarte zerbitzuei dagokienez. *Lau v. Nichols* auzian, Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak, orain arte hizkuntzaren inguruan eman duen epai bakarrean, anglofonoak ez diren ikasleei hizkuntza mugak gairatzen laguntzeko programarik ez ematean, 1964ko Eskubide Zibilen Legearen VI. Tituluaren urraketa zela adierazi zuen.

Orohar, egokitzen integrazionistak aldi baterakoak dira. Etorkinak nahiko integratuta dauden bitartean eta tokiko hizkuntza behar beste menderatzen duten bitartean, badirudi neurri positibo askok justifikazioa galtzen dutela (neurrien zenbait hartzailek kontra ere egin liezaiekete, gizarte orokorrak ez baititu erabat kide berdintzat hartzen). Estatu Batuak edo Kanada bezalako immigrazio handiko estatuetan, etorkin berrien jarioa etengabea da. Beraz, behin ezarritako erraztasunak gorde daitezke jatorri beretik etortzen direnentzat, ez jadanik daudenentzat. Normalean bigarren belaunaldiko etorkinek ez dute irakaskuntza erraztasun gehiagorik behar, ezta beren ama-hizkuntzan idatzitako formulario publikorik ere, baldin eta harrera gizarte hizkuntza behar bezala menperatzen badute. Herritar oso bihurtu dira. Dudarik gabe, etorkinak gutxiengo berri ere bihurtu daitezke. Etorkin taldeek, latinoamerikarrek bezala, talde indartsu bati eusten badiote, gizartearen barruan estatus bereizi bat atxikitzea izan lezakete helburu, eta gutxiengo eskubideak erreklamatu ditzakete halakotzat. Orduan, ez lukete gizarte-mailako *egokitze* premiarik adieraziko, baizik eta beren gutxiengo-ezaugarriak, hala nola beren hizkuntza edo kultura, *gordetzeko* asmo etnokulturala.

Europaren integrazioaren lehen urteetan, Europar Erkidegoetako estatu kide bateko nazionalitatea zuten langile migratzaileen seme-alaben hezkuntzako hizkuntza-eskubideak bateratzeko saiakera bat izan zen. Langile migratzaileen seme-alaben hezkuntzari buruzko Kontseiluaren 1977ko uztailaren 25eko 77/486/EEE Zuzentarauaren 2. artikulua arabera, estatu kideek, beren egoera eta sistema juridiko nazionalen arabera, neurri egokiak hartuko dituzte, hasierako harrera errazteko doako irakaskuntza beren lurraldean langile migratzaileen seme-alabei eskaintzen zaiela bermatzeko, bereziki, harrera horren behar horiei egokituriko irakaskuntza. Aldi berean, harrera estatuei eta jatorrizko estatu kideei eskatzen zaie elkarlanean aritzeko eta «neurri egokiak hartzeko, hezkuntza normalarekin koordinatuta, ama-hizkuntzaren irakaskuntza eta jatorrizko herrialdeko kultura sustatzeko [langile migratzaileena] umeentzat» (3. art.). Zuzentarauaren hitzaurrearen arabera, langile migratzaileen seme-alaben ama-hizkuntzako hezkuntza sustatzeak erraztu egin nahi du «jatorrizko estatu kidean berriro integratzeko aukera».

Badirudi Europar Batasuneko estatu kideek gomendio gisa hartu zutela 77/486/EEE Zuzentarauaren 3. artikulua, eta ez jarduteko betebeharrak gisa. Ez zuten inoiz transposizioerik egin. Argi dago xedapen horrek ez dizkiela zuzenean eskubide eraginkorrak ematen pertsonari, baina bai behartzen dituela: adibidez, estatu kide batek beste estatu kide batean bizi diren bere nazionalen seme-alabei beren hizkuntza nazionalaren irakaskuntza antolatu nahi badie, estatu horrek lehenengoarekin lankidetzan jardun beharko luke; bestela, lankidetzan falta Europar Batasuneko zuzenbidetik eratorritako betebeharren urraketatzat har liteke.

Iruzingile batzuen ustez, 77/486/EEE Zuzentarauaren 3. artikulua helburua ez litzateke hezkuntzako hizkuntza-eskubideak zabaltzea, langileen zirkulazio askea sustatzea eta migratzaileen seme-alaben hizkuntza-gaitasunak hobetzea baizik. Europar Batasuneko herritartasunarekin gertatzen den bezala (nazionala osatzen baino ordezkatzen ez duena), ama-hizkuntzaren irakaskuntza eta jatorrizko herrialdeko kultura estatu hartzaileko hizkuntzan emandako irakaskuntzaren osagarri izango liriateke zuzentarauaren asmoan. Edo nola ere, horrek erakusten du langile migratzaileen seme-alaben ama-hizkuntza irakasteak balio dezakeela hainbat helburu publikotarako. Estatu Batuetako neurrien helburua harrera-gizartearen onerako hezkuntza eraginkorra bermatzea da; aipatutako zuzentarauak, berriz, langileen mugikortasun bikoitza sustatzen du, eta esplizituki aipatzen du jatorrizko estatu kidean berriro integratzeko aukeraren helburua (“alderantziko edo itzulerako integrazioa” esan daitekeena).

Izan ere, eremu horretako lankidetzan alde bikotasunez garatu da. Langile migratzaile ugari dituzten Europar Batasuneko estatu kideek, Espainiak edo Greziak, esaterako, ama-hizkuntzan heziketa osagarria antolatu izan dute tradizionalki, eskari esanguratsua dagoen lekuetan atzerrian bizi diren nazionalen seme-alabentzat. Ildo beretik, Europako zenbait estatuk atzerrian jarduten duten lehen eta bigarren mailako eskolen sare bat antolatu eta diruz lagundu izan dute tradizioz (Frantzia, Alemania eta, neurri txikiagoan, Italia eta Espainia), eta bakoitzak bere nazionalari ematen die lehentasuna sartzeko ulean.

Europar, gutxiengo «berrien» eta «zaharren» arteko bereizketa sakonki errotuta dagoela dirudi (ikus Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena). Hala ere, eztabaida akademiko handia dago bereizketa horren oinarri filosofikoei buruz, ingurune anglofonoan behintzat. Ezin da baztertu, etorkizunean, bereizketa hori neurri batean desagertzea edo arintzea.

4. Herri indigenen eskubideen eredua

Hizkuntza-eskubideak garatzeko beste ildo bat herri indigenei dagokie. Herri indigenek babes behar bereziak dituzte, ez bakarrik euren bizitzetan eragina duten estatuko botereen jarduera eta, bereziki, garapen proiektuen aurka, baita euren lurralde tradizionala inbaditzen duten norbanako eta enpresa transnazionalen aurka ere. Oso gutxitan dute funtsezko boto-boterea eta kultura indigenak babesten dituzten legeekin konformatzera behartuta egoten dira. Herri indigenen aldeko nazioarteko zuzenbidea oraindik eratzten ari da. Oinarritzko bi tresna daude. Berriena dokumentu ez-loteslea da: Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpena, 2007an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua. Beste agiria 1989ko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) Hitzarmena da, herrialde independenteetako herri indigena eta tribalei buruzkoa.

LNEren 1989ko hitzarmena, herri indigenei eta tribalei buruzkoa (indarrean 1991ko irailaz geroztik) lurraren gaineko eskubideez, enpleguaz eta gizarte segurantzaren baldintzez arduratzen da batez ere, baina hezkuntzari buruzko xedapenak ere jasotzen ditu. Herri indigenetako haurrei irakatsiko zaie, ahal den guztietan, beren hizkuntzan edo beren inguruan gehien erabiltzen den hizkuntzan irakurtzen eta idazten (28.1 art.). Herrialde horietan, hizkuntza-indigenen garapena eta praktika babestu eta sustatzeko neurriak hartuko dira (28.3 art.). Behar izanez gero, estatuko gobernuak herri indigenei euren eskubide eta betebeharren berri emango die, batez ere, lana, aukera ekonomikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte ongizatea dagozkienetan, idatzizko itzulpenen bidez eta herri horietako hizkuntzetan komunikazio masiboak erabiliz (30.2 art.).

Tamalez, estatu kopuru txiki batek baino ez du hitzarmen hori berretsi, tartean Erdialdeko eta Hego Amerikako zenbait estatu, Europar Danimarkak, Herbehereek, Norvegiak eta Espainiak. Edonola, Europako estatu gehiagok hitzarmen hori berretsiko balute ere, adostasun orokorra dago Europar sami herria (Norvegiar, Suediar, Finlandiar eta Errusiar sakabanatuta bizi dena) soilik izan litekeela herri indigena. Izan ere, sami herria luzaroan integratu da bere inguruko gizarteetan.

Jurisdikzio batzuetan, herri indigenek abantaila bereziak dituzte (adibidez, elur-oreinak hazteko eskubide esklusiboa edo beste onura ekonomiko batzuk). Kasu horietan, herri indigena bateko kide izatea auzi eztabaidagarria izan daiteke. Finlandian, sami izaera efektu ofizialeterako onartzea (besteak beste, boto eskubidea izateko Sami Parlamenturako hauteskundeetan) nahiko zorrotza da. Sami Parlamentuari buruzko Legearen arabera, sami hizkuntza bigarren hizkuntza bezala hitz egitea ez da nahikoa: sami bat, sami hizkuntza ama-hizkuntza izan arren, bere burua samizat duen pertsona bezala definitzen da eta, gainera, berak edo gutxienez bere guraso edo aitona-amona batek sami hizkuntza bere lehen hizkuntza bezala ikasi izana exijitzen zaio.

Herrialde batzuetan, herri indigenei aitortzen zaien arauketa juridikoa, aipatutako nazioarteko tresnetatik eratorria, gutxiengo nazional edo linguistikoa baino aurreratuagoa da, behintzat paperaren gainean: adibidez, lur eta autodeterminazio eskubideei dagokienez. Eskubide horien ondorio ekonomiko izugarriak dira; aldi berean, herri indigenak dituzten estatu askok nazioarteko dokumentuak ez izenpetzearen arrazoietako bat hori delarik (Estatu Batuak, Kanada, Errusia, Txina, etab.). Aitzitik, badirudi hizkuntza-eskubideak ez daudela

beti herri indigenen arreta-gunean, ez eta hizkuntza-eskubideen abangoardian, eta, beraz, nazioarteko tresnek joera dute gutxiengoei buruzko Europako arauen atzetik mantentzeko. Ondorioz, kultura eta hizkuntza gaietan, herri indigenei hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkieten nazioarteko tresnak funtsezkoak izango dira Europatik kanpo bizi diren herri indigenentzat. Nolanahi ere, batzuetan kritikak egiten zaizkie herri indigenen hizkuntza txikienak mantentzea helburu duten eskubideei.

5. Hizkuntza ofizialen eskubideen eredia

Estatu gehienek hizkuntza bat hizkuntza ofizialtzat, estatukotzat edo nazionaltzat jotzen dute: alde horretatik, esan daiteke estatu guztiek hizkuntza ofizialen eskubideen ereduari jarraitzen diotela. Hala ere, hurrengo etabaidan nozio hori hizkuntza ofizial bat baino gehiago aitortzen duten estatuen multzoari gordeko zaio.

Konstituzio batzuek hainbat hizkuntza aldarrikatzen dituzte estatu-hizkuntza, hizkuntza ofizial edo hizkuntza nazional gisa (Belgika, Kanada, Finlandia, Hegoafrika, Suitza, India, etab.). Konstituzio batzuek ofizialki aitortutako hizkuntzen arteko berdintasuna ere ezartzen dute esplizituki. Hizkuntza ofizialen eskubideak aitortzea funtsezko erabaki politikoa da beti. Estatu multinazional eta/edo eleaniztun baten barruan hizkuntza-komunitateak edo komunitate etnokulturalak konstituzioan edo konstituzioaren arabera egokitzeari buruzko gai zabalagoekin lotuta dago.

Hizkuntza-eskubide ofizialen eredia gobernu-maila federalean edota estatu azpiko mailan aplika daiteke. Suitza, Belgika eta Kanada bezalako estatu federaletan eta Finlandia bezalako estatu unitarioetan, administrazio federala edo estatu osokoa, konstituzioaren arabera, hizkuntza ofizial guztiak berdin erabiltzera behartuta dago; horretarako, erakundeak, sarritan, hizkuntza-atal berezietan banatzen dira edo funtzionario federaleari hizkuntza ofizialak jakitea eskatzen zaie.

Hizkuntza ofizialen eskubideen eredia bat dator estatuko lurraldearen zati batek edo zati handi batek hizkuntza ofizial bakarra izatearekin. Izan ere, funtsean, lurraldetasun printzipioari jarraitzen diote hainbat estatuk: lurraldeak, ahal dela, eleaniztunak dira, eta herritar guztiek horrekin konformatu behar dute. Suitzak eta Belgikak hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten eskualde eta kantonamenduak dituzte gehien bat: biztanlego gehiena hizkuntza bakarreko lurraldeetan bizi da. Beraz, lurralde handi batean ez dago hizkuntza-eskubiderik, ez bada lurraldeko hizkuntza bakarrean. Printzipioz, interes publiko aitortua dago historiatik jasotako hizkuntza-lurraldeen osotasuna zaintzeko: hizkuntza-lurraldeen mugak ukitu ezinak dira. Kanadan hizkuntza ofizialak bi dira maila federalean, baina hizkuntza ofizial bat nagusitzat hartzen dute probintzia gehienek, “*official language rights*” frantsesa edo ingelesa hitz egiten duten probintzia bakoitzeko ko gutxiengoei aitortzen zaizkie-larik.⁹ Belgikan hizkuntza-lurraldeen arteko mugan dauden udalerrri jakin batzuetan frankofonei *erraztasunak* aitortzen zaizkie. Suitzako kantonamendu batzuetako udalerrietan *zenbait* hizkuntza-eskubide beste hizkuntza ofizial bat hitz egiten dutenei aitortzen zaie: udalerrri eskas horiek dira hizkuntza-lurraldekotasun printzipio zorrotzaren salbuespen bakarra.

Hizkuntza ofizialen eskubideen ereduak ez du esan nahi hizkuntza guztiak berdin tratatzen direnik. Hizkuntza ofizialen kopurua zehaztea erabaki politiko eta distributiboa da aldi berean. Eredu aurreratuenek edo bermatzaileenek ere ez dute talde linguistiko autoktono guztiak berdin tratatzen (adib., romansh Suitzan, sami

⁹ Probintzia elebidun bakarra Brunswick Berria da.

Finlandian, alemana Belgikan, inuktitut Kanadan, okzitaniara Katalunian, asturierara Espainian, ofizialki aitortu gabeko hizkuntza indigena asko Hegoafrikan).

Hizkuntza ofizial bat baino gehiago zehazterakoan hainbat irizpide hausnartzen dira: hizkuntza bakoitzaren hitzun kopurua (orain edo iraganean), hizkuntzaren prestigio kulturala edo hitzunen prestigio sozioekonomikoa (orain edo iraganean), hizkuntza-komunitateek estatuaren eraikuntzan edo berreraikuntzan esku-hartzeko izan zuten gaitasuna, hizkuntza-komunitateen eskaera nazionalistak, eta abar. Estatuak nazionalismo konkurrente moduko bati aurre egiten diotenean, «identitate komun bat sustatzeko eta demokrazia deliberatiboaren praktika sustatzeko modurik onena izan daiteke desberdintasun nazional eta linguistikoaren gradu bat aitortu eta instituzionalizatuko duten politikak hartzea».¹⁰ Alde horretatik, hizkuntza-eskubideak herritarrei emandako berme bereziak dira, estatua eraikitze edo berreraikitze akordioaren parte «natural» gisa, edo diktadura osteko (Espainia) edo «postarrazista» den (Hegoafrika) estatu baten legitimitate-negoziarioaren parte gisa: estatuak herritarren konfiantza eraiki nahi badu, besteak beste, hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu.

Beraz, hizkuntza-eskubideak oinarritzko mota baten konpromiso eskubideak izaten dira. Karakterizazio horrek bi zehaztapen behar ditu. Lehenik eta behin, hizkuntza-eskubide konstituzionalak konpromiso politiko baten ondorio izatea ez da eskubide horiei bakarrik aplikatzen zaien ezaugarria. Bigarrenik, hizkuntza-eskubideak akordio konstituzional baten emaitza gisa sortzeak ez du esan nahi justifikazio moral bereizgarririk ez dutenik. Edonola ere, hemen, hizkuntza-eskubideen zeregina bakea estatu barruan mantentzea da: alegia, estatua desegitea ekar dezaketen borroka politikoak saihestea. Hori da, adibidez, Finlandiaren, Suitzaren, Kanadaren, Belgikaren, Espainiaren eta Hegoafrikaren kasua.

Hizkuntza ofizialen eskubideen ereduaren helburua da gutxiengo linguistiko *jakin batzuk* babestea, ez hizkuntza-gutxiengo *guztiak*, edo hizkuntza *zehatzekiko* baldintza-berdintasuna bermatzea, ez hizkuntza guztiena. Oinarritzko eskubide gisa formulatuz gero ere, hizkuntza-eskubide konstituzionalak ez dira ematen estatuan bizi diren norbanako eta talde guztien askatasuna eta berdintasunaren mesedetan, baizik eta funtsean *zenbait* hizkuntza-komunitateren mesedetan (adibidez, frantsesez eta suedieraz hitz egiten duten herritarrak Kanadan eta Finlandian, hurrenez hurren). Kanadako Auzitegi Gorenaren *Beaulac* epaiaren esaldi bat erabiliz, esan daiteke hizkuntza-eskubide ofizialak beti direla funtsezko tresna, ez xede hutsa. Hizkuntza-eskubideek eskubide unibertsal izateari uzten diote, eta eskubideen kategoria desberdina osatzera igarotzen dira, pribilegio horien jabea den pertsona-taldea alde aurretik identifikatu behar bada.

¹⁰ Patten eta Kymlicka, aipatua, 41 orr.

Ondorioak

Hizkuntza-eskubideen izaera eta, halaber, bost eredu arauemaile aztertu ditu lan honek. Eredu horiek ez dira espekulazioaren fruitua, nazioarteko eta estatu barruko arauetatik eta gobernuen praktiketarik eratorriak baizik. Politikaren mundu errealean, eredu horiek ez dira aukera sinpleak, konbinazioetarako, salbuespenetarako eta estatus bereziko barietateetarako espazioa ahalbidetzen duten kategoria zabalak baizik. Adibidez, Hegoaldeko Tirol-ean hizkuntza ofizialen eskubideen ereduak dago alemanaren eta italiarren arteko baldintza-berdintasuna lortzeko, baita, aldi berean, etnia-taldeek gobernu partekatze antolamendu zorrotza eta are proportzio etnikoaren arabera herri-administrazioaren osaketa ere. Era berean, Kanadak hizkuntza ofizialen eskubideen ereduari beste bi arauketa gehitzen dizkio bi hizkuntza-komunitate handiren mesedera: herri indigenentzako eskubide bereziak eta hizkuntza-komunitate ofizialetakoak ez diren pertsonentzako zenbait hizkuntza-doikuntza. Kontua da hemen azaldu diren hizkuntza-eskubideen eredu normatiboek ez dituztela beste osagaiak baztertzeko.

Eredu horien eduki juridikoak oraindik babes-maila altuagora eboluzionatu dezake. Hala ere, haren izaerari eta oinarri moralei buruzko ondorio batzuk atera daitezke jada.

Nahiz eta hemen aurkeztu diren hizkuntza-ereduak, praktikan, gogoeta nahasietan inspiratuta egon, justizia linguistikoaren nozioa neurri bateraino barne, printzipioz oinarri moral eta juridiko ezberdinetan oinarritzen dira eta oso kezka ezberdinak adierazten dituzte: autonomia pertsonalerako eta garapenerako, integrazio sozialerako eta kohesiorako, babes etnokulturalerako edo integrazio politikorako. Erakunde politiko desberdinetan hizkuntzari dagokionez bestelakoak diren gizarte-segmentuen izenean aitortzen diren hizkuntza-eskubideek antzekoak dirudite eduki juridikoari dagokionez (adibidez, agintariekin norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea edo hezkuntza norberaren hizkuntzan jasotzekoa), baina horren azpian dagoen justifikazioa ez da beti bera izango. Aldarrikapen indartsuena, hizkuntza propioan bizitzeko eskubidea, masa kritiko nabarmena duten hiztun-komunitateentzat baino ez da egingarria.

Gutxiengo «berrien», «aintzinako» gutxiengoaren eta herri indigenen aldeko eskubide ereduak ezaugarri komun batzuk partekatzen dituzte: dagokien taldeen behar berezietan oinarritzen dira guztiak moralki, nahiz eta dituzten behar zehatzak agian ez diren berdinak (erkatu, adibidez, Sami lurraldean dauden elur-oreinen hazleak, San Frantzisko-n bizi diren etorkinak edo jatorri asiarreko herritarrak, edo Errumaniako gutxiengo nazionalen kideak). Hiru kasuetan, arau juridikoek (nazioartekoak zein estatukoak) eta praktika administratiboek eskakizun jakin batzuekin lotzen dituzte hizkuntza-eskubideak (edota hizkuntza-erraztasunak eta moldaketak): hiztun-taldearen tamaina, dagokion zerbitzuaren eskari esanguratsua, bitarteko eta xedeen arteko proportzionaltasuna eta eskubide edo erraztasunaren arazoizkotasuna. Gainera, gutxiengoaren kide izaera efektu juridikoz definitu behar du legeriak. Aldiz, giza eskubideak eta hizkuntza ofizialen eskubideak ez daude egoera, baldintza edo norbanakoaren definizioaren menpe: giza eskubideak edonon aitortzen bazaizkio, hizkuntza ofizialen eskubideek, aldiz, lurralde jakin batean kokatuta dauden hiztun guztiei edo zehaztu batzuei baino ez diete mesede egiten.

Argudia liteke «antzinako» gutxiengoei, gutxiengo «berriei» eta herri indigenei aitortutako hizkuntza-eskubideak arau-eredu berekoak direla: haien titularrak gutxiengo mota ezberdinak izango lirateke, eta eskubide horien justifikazio normatiboa bera izango litzateke, babeserako behar bereziak egotea. Gaur egun, ordea, nazioarteko eta estatuko zuzenbideek zorrotz bereizten dituzte hiru taldeen egoerak. Eta ez da begi-bistakoa behar berak dituztenik eta beti eskaera berak egiten dituztenik: politikoki eskatzen ohi dituzten eta juridikoki aitortzen ohi zaizkien hizkuntza-eskubideak oso desberdinak dira irismenari dagokionez.

Azkenean, estatu bakoitzeko testuinguru soziologikoak, politikoak eta historikoak taxutzen du zenbait gizarte-segmentuk bilatzen duten hizkuntza-egokitzapena, bai eta estatuak (hizkuntza nagusiaren hiztunek), oro har, onartzeko prest dagoen hizkuntza-egokitzapena ere. Ereduak oro har eta banakako hizkuntza-eskubideak aktibismo politiko eta sozialaren emaitza dira batez ere, eta nahitaez indar-harremanen mendean gertatzen dira, gainerako arau eta gizarte praktikekin gertatzen den bezala.

Hizkuntza-ereduak ez dira unibertsalak, tokian tokikoak baizik; ez diote helburu bakar bati mekanikoki jarraitzen, hiztunen ezaugarriak eta testuinguruaren arabera hainbat helbururi baizik. Hiztunen lehentasunak eta aspirazioak interpretatzeko eta negoziatzeko ez dago prozesu politiko baina tresna demokratiko eta egingarriagorik. Hizkuntza-eskubideak prozesu politikoaren bidez eratzten dira nagusiki eta horrela izan behar du nahita ez.

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus